

Itzulpenik gabeko hitzen iruditegia

Komorebi, pochemuchka, backpfeifengesicht, hanyauku, ilunga... Horrelako hitzetan oinarrituta, hiztegi bitxia argitaratu du Anjana Iyer Zeelanda Berriko diseinatzaile grafikoak. *Found in Translation* izenburuean, 30 hitz aukeratu ditu, ingelesez itzulpenik ez dutenak, eta berak menperatzen duen hizkuntza unibertsalean, irudien bidez, itzuli ditu.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |


LOST IN TRANSLATION (itzulpenean galdua) esamoldearekin jokatzuz, Anjana Iyerrek *Found in Translation* (itzulpenean aurkitua) izenburua ipini dio bere proiektu bereziari. Zeelanda Berrian jaio arren, indiar jatorrikoa da Iyer eta eleaniztasunari egozten dio hainbat hizkuntzatariko hitz berriak ikasteko txikitatik izan duen grina.

Zeelanda Berrian bada *100 Days Project* (100 eguneko proiektua) izeneko ekimen bat, nahi duenak, 100 egunetan, gustuko duen sormen

jarduera garatu dezan. Eta Anjana Iyerrek bere bi pasioak uztartu ditu proiektua abian jartzeko: hitzak eta irudiak. Egunero ingelesez itzulpenik ez daukan beste hizkuntzaren bateko hitz bat hartu eta irudien bidez azaltzean datza proiektua eta oraingoz 30 ale ditu argitaratuak.

Hainbat hizkuntzatatik hartu ditu hitzak, bi iturri nagusi kontsultatuta: Howard Rheingold-en *They Have a Word For It* (Hitz bat dute horretarako) eta Adam Jacot de Boinod-en *The Meaning of Tingo* (Tingoren esa-


nahia). Baina ez da harritzekoa gehien erabili duen jatorrizko hizkuntza alemana izatea. Alemanak luzera mugagabeko hitz konposatuak sortzeko aukera ematen du. Hala, Errekoren Guinness Liburua-
ren arabera, alemanezko hitz bat da munduko luzeena, eta edozein unetan hitz jaioberri batek kendu diezaioke ohorea. Luzera esanahiaren konplexutasunarekiko proportzionala izan ohi denez, alemana hornitzailer oparoa izan da diseinatzailearen tzat. *Waldeinsamkeit* hitzak “basoan




Iktsuarpok hitzak, inuit hizkuntzan, “norbait noiz azalduko zain zaudenean sentitzen duzun frustrazioa” esan nahi du.



Backpfeifengesicht hitzak “ukabilkada etsituki behar duen aurpegia” esan nahi du alemanez.



Ilunga hitza, tshiluba hizkuntzan: “lehenengoan gehiegikeria barkatzeko prest dagoen pertsona, bigarrena onartuko duena, baina hirugarrenetik sekula ez”.



Pazko uhartean, **tingo** hitzak “auzoaren etxetik ondasunak pixkanaka lapurtzea, gauzak maileguz hartuz eta gero ez itzuliz” esan nahi du.



Suedierazko **gökotta** hitzaren esanahia: “Egunsentian esnatzea kanpoan lehen txoriak kantatzen entzuteko asmoarekin”.



Schilderwald hitzak, alemanez, “hainbeste seinalez jositako kalea, non galdu egiten baitzara” esan nahi du.

bakarrrik egotearen sentipena” esan nahi du. *Schadenfreude* erabilera praktikoa izan dezake, “besteren zorigaitzak sorrarazitako gozamenen” oso ohikoa baita. Laburra izan arren *fernweb* hitza ere alemanezkoa da, eta “sekula egon ez zaren toki batengatik herrimina sentitzea” esan nahi du.

Zabaltzeko aukerarik bai?

Iyerrek bildutako hitz askok kontzeptu oso zehatzak adierazten dituzte. Japonieraz badago hitz bat “eguzki izpiak zuhaitz artetik iragazten direnean sortzen den nolabaiteko argi efektu barreiatua, pikardatua” esan nahi duena: *komorebi*. Eta hizkuntza berean *tsundoku* erabiltzen dute “erosi ondoren liburu bat irakurri gabe uzteko eta irakurri gabeko beste liburuekin batera pilatzeko ekintza” adierazteko. Gutxitan sumatuko dugu hitz horiek erabiltzeko premia.

Baina badira hitz mailegagarriagoak. Nor ez da hondartzan oin puntetan ibili hareak oinazpiak erre-

tzen dizkiolako. Ekintza horri, hondarra beroa dagoenean oin puntetan ibiltzeari, *banyauku* esaten diote Namibian eta Angolan hitz egiten duten rukwangali hizkuntzan. Ziur hondartzako gune turistikoetan arrakasta handia izango lukeela hitz horrek. Testuinguru horretan norvegierazko *utepils* hitzak ere erabilera praktikoa izan lezake: “Egun eguzkitsuetan garagardo bat edanez kanpoan eserita egotea” esan nahi du.

Eta nori ez diote errieta egin edo nork ez die besteei errieta egin edalontzi bustia mahai gainean uzteagatik, arrastoak altzariak hondatzen dituelako? Bada, edalontziek utzitako arrasto hezea esateko hitz bat badute italiarrek: *culaccino*. “Kontuz, kulatxinoa!” esanda errietak askoz laburragoak lirakeke.

Zaila da esaten itzulpenik gabeko zer hitz hedatu daitezkeen beste hizkuntzetan, baina ez dugu urrutira joan behar adibide garbi bat topatzeko. Gaztelaniazko RAEren hiztegiak

sarrera hau jasotzen du: “Aquelarre: Junta o reunión nocturna de brujos y brujas, con la supuesta intervención del demonio ordinariamente en figura de macho cabrío, para la práctica de las artes de esta superstición”. Sorgingen gau-bilera esateko hitzik ez eta munduko hizkuntza nagusietakoak euskaratik hartu zuen hitza. Gerora, jatorrizko esanahiak indarra galdu zuenean, irudizko adierak hartu zituen; *aquelarre* hitzak “festa iskanbilatsu neurrigabea” edo “nahasmen-dua, zalaparta” ere esan nahi du.

Iyerrek proiektua burutzen badu, bildumak beste 70 sarrera izango ditu. Hala ere, zeelanda berritarraren lana ez da kontsultarako obra, ez da itzulpenik gabeko hitzei buruzko tratatu sakona. Bere bi zaletasun, hitzak eta irudiak, uztartuz egindako ariketa hutsa da, baina baita hizkuntza aniztasunari eta aberastasunari egindako omenaldi eder-rra ere. ■



Babeslea: EMUN



emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



HIZKUNTZA
ZERBITZUAK



KULTURA
ZERBITZUAK



ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK



PARTE HARTZE
ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO

www.emun.eus